



David Urtasun:  
"Aitari eta amari zor  
zaien maitasuna"

Dorleta Huitzi:  
"Uda, Kanpezura  
joateko garaia"



## Tourretik Donostiako Klasikora, eskualdean barrena igaroz

Donostiako Klasikoa datorren abuztuaren 4an Aduna aldetik  
iritsiko da Andoinera, Urnieta aldera abiatzeko / 8



**Euskalduna  
futbol taldeko  
lehendakari izandako  
Joxan Huizi zendu  
zen asteartean / 7**

**Auzoen arteko  
herri kirol jaialdiak  
Etxeberrietako,  
Goiburuko  
eta Buruntzako  
jaietan / 6**

**Mendi irteera  
antolatu du Urnietako  
Zanpatuz mendi  
elkartek, datorren  
uztailaren 24rako / 6**



**Puzgarriak eta ipuin  
kontaketa saioa,  
datorren abuztuaren  
4an Urnietako  
igerilekuan / 6**





Karrikako gazte taldea, animoz beterik, larunbat gaueko danborradan. AIURRI

# Gazteen kemena Karrikako jaietan

Aurtengo jaietako danborradatik, parte hartzeari dagokionez bi datu aipagarri: Gazteen eta emakumezkoen parte hartze handia. Jaiaren eta danborradaren etorkizuna bermatzeko garrantzia handiko aldagaiak dira biak



Danborradako kideek ekainean hil berri den Agustín Lavadoren etxe aurrean geldialdia egin zuten, urte luzez jaietan egin zuen lana omentzeko asmoz. AIURRI

## Xabier Lasa ANDOAIN

Ezaugarri berezi-bereziak dituen auzoa da Karrikakoa, jaiei erreparatzen hasita. Ezagunena, akaso, igande arratsaldean egin ohi duten play-back saioa. Aurtengo deigarria egin da sagardo dastaketa girotzeko musika aparailutik entzun zitekeen reggae-toia.

Jaiaren antolaketarako boluntario falta izan da azken urtetako gaitz nagusia, festen ospakizuna arriskuan jartzearaino. Datu ezkor horren ondoren, itxaropenerako bi ekitaldi hartu behar dira gogoan: danborrada zein play-backa. Parte hartzaileak izan dira bi ekitaldiak, eta bietan gazteak nabarmendu dira. Sagardo dastaketan ere erreleboa gertatu dela dirudi, jaiaren etorkizuna bermatzeko beste arrazoi bat. 2019an ere "Gaixoa ni" abes-terko moduan izan daitezke.

## Sargori egunez, ekaitza gauez



Gomaren bitartez hainbat metroko altuera har daiteke. AIURRI

**Haur jolasak** Edozein auzoko edo herriko jaietan haurrei zuzendutako hitzorduak antolatzea ezinbestekoa da. Jai batzordeak, gainera, txikiei proposamen berriak eskaini dizkie aurtengo jaietan.



Bero egin du aurtengo jaietan. AIURRI

**Itzalaren bila** Sargori zen larunbat eguerdian, eta lanean ez ziren auzotarrak goxotasunaren bila aritu ziren. Itzala eta abanikoa freskagarrien osagarri bikainak bilakatu ziren. Bero egin zuen igande eguerdian ere. Ondorioz, antzeko irudiak errepikatu ziren.



Txosna batzordean larunbatean aritu zen taldetxoa. AIURRI

**San Julio** Txosnagunean jarri ohi dute, eguraldi zakarretik libratzea haren ardurapean utziz. Santuak egoki bete ohi du "eginkizuna", batzuetan. Fedez gain lanerako inplikazioa behar da jaiak ondo irten daitezen.



# Zumba eta dantza saioak



Zumbalokura taldeko kideak, larunbat arratsaldeko erakustaldiaren ondoren. AIURRI



Gazteak eta helduak aritu ziren play-back lehiaketan. Gehientsuenak, hori bai, emakumezkoak. AIURRI



Play back-eko sari banaketa ekitaldia.



Zumba saio berria eskaini zuten igande arratsaldean, play-back saioarekin batera.

## Hitzordu ugari igande eguerdian



Paella osatzen lehenak izan ziren auzokideak. AIURRI

**Paella jana** Jai batzordeak 80 plater eskaintzeko paella ontzia egin zuen, baina ez zen eurena bakarria izan. Lauzpabost taldek paella txikiago bana egin zuten, eguerdiko 12:00tan hasita. Argazkikoak izan ziren paella egiten lehenak.



Igande eguerdian beroa handi samarra zenez, itzala bilatu zuten. AIURRI

**Marrazki lehiaketa** Datorren urteko egitarauaren azaleko irudia igande eguerdiko lehiaketatik irten zen. Haurrak eta gazteak lehiaketa noiz hasiko zen zain ziren. 30 lagun inguru taulagainaren ondoan ipini zituzten mahaitan marrazten aritu ziren.



Adinean gora doazenek eta gaztegoek parte hartu zuten tokan. AIURRI

**Toka txapelketa** Animazioz beterik ekin zioten igandeari Karrikan, jarduera ugari batera antolatuz. Nagusiki toka txapelketa, marrazki lehiaketa edota paella jatea. Eguerdian lanean ez zegoena, txosnaren barraren bestaldean zegoen.



## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

DAVID URTASUN ANDOAINDARRA, NEKANE ETA JOAKINEN SEMEA

## Aitari eta amari zor zaien maitasuna



Datorren uztailaren 22an 4 urte beteko dira, aita, gure "lur mundutik" joan zinenetik. Azken egunetan, ospitalean ginela, galdetu zenidan ea erosi berria nuen bizikletan joan ote nintzen bisitan zugana. Orduan, zoritxarreko bukaera ezaguna nuen horretan..., zuri eta zure alabari esan nizuen "ez, ez naiz bizikletaz etorri baina ikusiko duzu nola egunen batean zuk hainbeste maite dituzun mendiak zeharkatuko ditudan: Pirineoak. Ikusiko duzu!!"

Esaldia ez dut inoiz ahaztu eta "agurtu" ondorengo egunetan neure buruari zin egin nion 44 urte betetzerakoan horixe izango zela nire ametsa. Zergatik adin horrekin, eta ez aurretik, edo ondoren? Urte horiek zituelako gure bihotzean daramagun

"amatxo maitia"k, 1989an zendu zenean. Horregatik aita, zuri esandakoagatik, zu eta amatxo goraiatzeko, barruan sentitzeko, omentzeko,... horixe izan da nire azken lau urteetako ametsa. Horretan aritu naiz eta horretan eman dut nire ahalegin guztia!

Transpyr lasterketa bakarrik egin dut, nahiz eta antolatzaileek bikote-hirukotea egiteko gomendioa egin. Hala ere, neure burua ez dut bakarrik sentitu; fisikoki bakarrik egon arren "hiru gara", hiru ez, 6, 10, 14, 15, 16.... pilo bat: etxeokoa, senideak, lagunak, lankideak, bizilagunak, denak bat!! Ondo gordeta dudak esaldiak dioen moduan "bizitza honetan bitan hiltzen gara; lehenengoa gorputzak agur esaten digunean, eta bigarrena, pertsonarekin inor gogoratzen ez denean". Eta hori ez da inoiz gertatuko, zin dagizuet. Bihotzean, bihotzez... muxu aita, muxu ama, muxu denei!



ZABALIK

DORLETA HUITZI KANPEZUKO UDALKEUETAKO HEZITZAILEA

## Uda, Kanpezura joateko garaia

Uda giroaren usaina hartzen hasten garenean, gure buruetan ideia bat edukitzen dugu: Kanpezura joatea. Aurten ere 200 ikasletik gora animatu dira La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatzen duen udako ekintza honetan parte hartzera.

40 urte baina gehiago badira Kanpezuko kanpaldia martxa jarri zela eta urteak joan eta urteak etorri, arrakasta itzela du gaur egun ere. Arrazoi asko daude harrera on horri eusteko, baina garrantzitsuena bertara begirale, arduradun edota sukaldari joaten direnen boluntariotza da. Muxutruk lan egitearen ideia indarra galtzen doa gizartean, baina beste arlo batzuetan ematen

den bezala, kanpaldi honetan boluntariotza ezinbestekoa da.

Udalekuak helburu jakin batzuk ditu: lehenengoa inguru euskaldun batean bizitzeko aukera izatea, eskola eremutik kanpo. Baita umeen autonomia sustatzea beraien egunerokotasunean ere, haienak diren gauzez arduratuz adibidez. Helburu garrantzitsua naturarekiko harremana sustatzea da ere, Kanpezuko kanpaldiaren kokapenagatik ezinbestekoa delako.

Udaleku honetan umeek dendetan egiten dute lo, aterpe batean egiten dituzte otorduak, jolasak, gaubelak... basoa eta zelaia dira eguneroko paisaian ikusten direnak.

Aurten ere, aurreko urteetan bezala, Kanpezuko udalekuak lau txandatan banatu dira. Lehen Hezkuntzako bi talde, zeinean 5. mailako eta 6. mailako ikasleek Kanpezu herria eta gertuko beste leku batzuk ezagutzeko aukera izan duten: Kanpezuko Ibernalo, Maeztu, Antoñana...

DBHko 1 eta 2. mailakoak, aurrekoek ezagututako inguruez gain, Fuenmayor herrira ere hurbildu dira ingurua ezagutu eta ekintza desberdinak egiteko.

DBH 3 eta 4. mailako taldeek Delta egin dute, Tafalla herritik Kanpezura 11 egunetan iritsiz. Eguneroko herri batetik bestera mugitu dira leku desberdinetako eskola eta pilotalekuetan lo eginez.

Aurtengoa egin dugu eta dagoeneko hurrengo urtekoan pentsatzen ari gara. Gure arrakasta honek luze iraun dezan jarraituko dugu lanean!



**Aiurri eskuragarri:**  
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Umietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.  
**Maketzaileak:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus  
**Banatzailak:** Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Umietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA Umietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

GIPIZKOAKO Foru Aldundia Hilemizia Beeldintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: Biteskan

BABESLEAK: AIURRIKO harpidedunak ezinbestekoak dira.



# SANTIOAK 2018 AMASA-VILLABONA



## KEINU

- Festetako zapiak, blusak...
- Dantzarako arropa
- Baserritar jantziak
- Era guztietako bordatuak (txapelak, banderak...)

**Kale Nagusia, 12. ANDOAIN**  
**637 283 224**  
[keinuandoain@gmail.com](mailto:keinuandoain@gmail.com)

*Losler salmenta online*

Gora Santioak!

www.txapelasybordados.com - www.txapelaketabordatuak.eus

RUBÉN eta ANABEL  
2018-07-14 ZORIONAK

MAY MOMENTOS EN LA VIDA QUE SON ESPECIALES POR SI SOLOS  
AITA  
24-07-2018  
Rubián & Anabel  
COMPARTIDOS CON LAS PERSONAS QUE QUIEREN CONVERTIRSE EN POLYGLOTOS

ANDONINGO GALTETXEKO XIII. PILOTA TARTAKETA  
2018-07-13

A VIEJA LO QUE EMPERZA COMO UNA LOCURA SE CONVIERTE EN LA MUJER MÁS HERMOSA  
Pili & Ivan  
11-06-18



# Jai batzordearen balioa

Lizasok Jai batzordearen garrantzia nabarmentzen du: "Herria herrigintzaren eta boluntariotzaren bitartez sortzen da, eta guztion laguntza behar dugu horretarako"

**Amaia Senperena** VILLABONA

## Noiztik zarete Jai Batzordeko partaide?

Iñaki: Urte asko daramatzat ahal dudan bilera gehienetara joaten. Agian egongo da gutxiago joan naizen ikasturteren bat, baina saiatzen naiz ahal dudan heinean bilera guztietara gerturatzen. Sofia: Neronek 27 urte inguru daramatzat abesbatzako ordezkari moduan Jai Batzordeko bileretara joaten. Oso garrantzitsua iruditzen zait horrelako ekimenetan parte hartzea.

## Zein da Jai Batzordera joaten den herritarren profila?

Iñaki: Normalean herriko elkarreetako ordezkariak gerturatzen dira batzordera, eta esan dezaket ni naizela bertara gerturatzen den gazteenetarikoa. Beraz, adinari dagokionez, faltan botatzen dut herritar gazte gehiagoren presentzia. Orain Oinkari dantza taldetik jende gaztea gerturatzen hasi da, baina orain arte batzordekideon batz bestekoa jende heldua garelara esan genezake.

## Herriko elkarreetako ordezkari ez diren billabonatarrek ere gerturatzen al dira bileretara?

Sofia: Egia esan ez da jende asko gerturatzen. Aurten, gainera, otsailean hasi gara prestaketa lan guztiekin eta uste baino jende gutxiago gerturatu da. Era-kunde asko, gainera, beraien ekintzak programatu ostean ez dira berriz bileretara etortzen. Iñaki: Bai, nik ere sumatu dut ideia ezberdinak aurkezteko herritarren falta. Ia 6.000 biztanle dituen herri batean zaila da festa guztiak zortzi pertsonen artean antolatzea. Batez ere, hartu beharreko erabaki batzuk herri mailako erabakiak baitira. Hala nola, sokamuturra egin ala



Iñaki Lizaso eta Sofia Quilez Jai batzordeko kideak dira. AIURRI

ez egin, koadrilen egunean eguraldi txarra eginez gero bazkaria non egin, eta abar.

## Zer nolako berrikuntzak izango dira jai hauetan zehar?

Sofia: Saiatu gara emakumezkoen musika talde gehiago ekartzen. Gorritiren erakustaldia gure egitarauan ez sartzeara erabaki dugu.

## "HERRITAR GEHIAGOREN PARTE HARTZEA FALTAN BOTATZEN DUT"

IÑAKI LIZASO, JAI BATZORDEA

Aurten, gainera, jaietako kartelaren aukeraketa Jai batzordearen esku egon da

Sofia: Bai, baziren urte batzuk kartela Udala aukeratzen hasi zela. Aurreko urtean kartel lehiaketarekin pasa zenaren ostean, berriz ere lekukoa Jai batzordeari pasatzea erabaki dute.

## "SEI MILA BIZTANLEKO HERRIAN ZAILA DA GUTXIREN ARTEAN JAIK ANTOLATZEA"

SOFIA, JAI BATZORDEA

## Zuentzat zein da jaietako ekitaldirik kuttunena?

Sofia: Kuadrilen eguna.

Iñaki: Kuadrilen eguna eta erromeri eguna.

## Aurtengoan Kuadrilen eguna larunbatarekin jartzeko erabakia nondik nora hartu duzue?

Iñaki: Berez jende asko biltzen duen eguna da kuadrilena, eta larunbata izanik eta gauean Gozategi dagoela ikusirik, jende gehiago gerturatuko dela iruditzen zait. Hori ez dakit guztiz positiboa den, batez ere ostalaritzaren ikuspuntutik. Ez baita berdina Kuadrilen eguna eta larunbata bi jaiegun ezberdin izatea edota bi festa horiek egun bakarrera mugatzea.

Sofia: Bi egunek bat egin behar zutela uste dut. Eta horixe izan da bilatu dugun modurik egokiena.

## Gazte eguneko kontzertuen inguruan ez diozue herriari galdetu. Zer dela eta?

Sofia: Jendearen inplikazioa nahi genuen jaien antolaketan, baita kontzertuen aukeraketan ere. Parte hartzeko, batzordera etortzea nahi genuen, bidegabe iruditzen baitzitzagun jai batzordera etorri ez direnei kontzertuak aukeratzen uztea.

## Jai batzordera gerturatu eta bertan parte hartzeko, zein mezu zabalduko zenieke herritarrei?

Sofia: Beste ikuspuntu batzuk jasotzea guztiontzat positiboa da. Herritar ororentzat egiten saiatzen garen egitaraua da, bertan guztiontzat interesgarriak izan daitezkeen ekintzak sartuz. Iñaki: Herria herrigintzaren eta boluntariotzaren bitartez sortzen dela esango nieke. Hori amaitzen den momentuan gauza askok zentzua galduko dute. Herrigintzaren alde asko ematen duen pertsona sentitzen naiz, eta horrek bere alde positiboak eta negatiboak izan ditzake.

Jendeari ateak zabalik dituela esango nioke, animatzeko eta bileretara gertura daitezela. Ez da inongo elkarteko kide izan behar Jai batzordean parte hartzeko.

## Remi gogoan izango dugu uztailaren 31n



**REMI GOGOAN**  
HERRI EKIMENA

"Bederatzi urte igaro dira, baina zauria ez zaigu itxi oraindik. Ezin dugu eta ez dugu ahaztu nahi 2009ko uztailaren 31n gertatu zena.

Egun hartan Remi Ayestaran Amasa-Villabonako herri ordezkari bezala ari zen lanean, Ertzaintzaren probokazioei muzin egin eta festak bakean bukatu zitezten ahaleginean. Baina ez zioten utzi, bihotza leherrarazi zioten.

Oraindik inork ez du azalpenik eman ezta ardurarik bere gain hartu ere. Bada garaia Remiri zor zaion aitortza egiteko!

Egia, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa exijitzen jarraitu beharra daukagu.

Ez diegu uko egingo gure aldarrikapenei, bidezkoak direla sinesten baitugu.

Bide horretan, urte hauetan guztietan herritar asko eta askoren babesa sentitu dugu eta aurten ere hala izatea nahiko genuke. Horregatik, uztailaren 31n, arratsaldeko 20:00etan Remiren izena daraman ibilbidean espero zaituztegu.

Bide batez, lerro hauek baliatu nahi ditugu, urteroko omenaldian musu-truk parte hartzen duten dantzari, bertsolari, musikari eta gainerako lagunei eskerrak emateko".



# Aizkardirekin txupinazoa

Azken asteetan Piriniotan barrena ibili dira Aizkardiko kideak. Santio jaien ostean, abuztua deskantsurako aprobetxatuko dute eta irailean ekingo diote berriro ere

**Olatz Lasa** VILLABONA

Urtero legez, uztailearen 24an lehertuko dira Santio jaiak Villabonan 18:00etan Errebote plazan. Eta txupinazoa jaurtitzearan ardura Aizkardi Mendizale Elkarteko kideena da.

Aizkardi Mendizale Elkartetik azaldu dutenez, "gurekin gogoratzea ona bezain polita da, eta eskertzekoa". Asteartez hasiko direnez festak, kide asko lanean arituko direla adierazi dute, eta hortaz zailtasunak izango dituztela eszenatokira zeintzuk igo erabakitzerakoan. Bestalde, diskurtsua prestatzeko elkartzen ari direla esan dute, txupinazo egunerako guztia prest edukitzeko. Hala ere, batzuentzat ez da lehen aldia izango. Izan ere, 2015. urtean Oinkari Dantza Taldeak jaurti zuen txupina beren

40. urteurrenagatik eta bertan egon ziren Aizkardi Mendizale Elkarteko zenbait kide.

## Aizkardiren hastapenak

1957an sortu zen elkarte, Loatzo izenarekin. Izen horrekin "mendia eta kirol jarduerak" batu nahi izan zituzten. Aizkardi izena hartu zuela 40 urte inguru bete dira.

Egun 270 federatu inguru dau, baina elkartearen martxa jarraituko duen erreleborako jenderik ez dagoela azpimarratu nahi izan dute. "Jende ugari hasten da gure alboan, baina ondoren independizatu egiten dira".

Hamar lagun elkartzen dira ostegunero, irteerak antolatuzko. Gustura egiten duten lana dela esan dute.

## Azken irteera, Pirinio aldetik

Lecherines menditik zehar egin zuten azken irteera uztailearen 8an. "Egun ona izan zen, eguraldi ona eduki genuen eta bistak zoragarriak ziren". 18 lagun joan ziren, eta ibilaldia pentsatu bezala irten zela gehitu dute.

Abuzturako ez dute irteerarik iragarri, deskantsurako aprobetxatuko baitute. Iraileko azken-aurreko asteburuan ekingo die berriz ere mendi irteerei Benasque - Renclusa - Maladeta - Aneto ibilbidearekin. Hortik aurrera, hilabetero pare bat irteera dituzte aurreikusita, gutxi gorabehera.

## Euskal Herriko zazpi lurraldeetatik

Mendi irteerak erabakitzerako orduan, kontutan hartzen duten



Aizkardi mendizaleen elkarteko kideak Leitzarango Unanibia zubian barrena. AIURRI

irizpidetako bat zera da, Euskal Herriko zazpi lurraldeak zapaltzea. Leku asko eta asko bisitatu dituzten arren, oraindik eza gutzeko leku gehiago ere badirela aitortu dute, eta horretan jarraituko dute lanean.

Mendiko irteeretara taldean joatean giro polita sortzen dela, eta barre uneak ere egoten direla esan dute.

Urte osoko egitaraua eta informazio gehiago aizkardi.com webgunean topa daitezke.

**Errota txiki...**

**Gora Santioak**

Pintxoak  
Platerak  
Musika zuzenean...

Errota, 2-behea  
Villabona. 943 53 87 70

**aukera ezberdin bat ...**

**Gozatu herriko jaiak!**

**RESA GUIPUZCOANA**

Iveco kamioi eta furgoneten salmenta eta konponketa

N-1 errepidea 444 km.  
20150 Villabona.  
Tel: 943 690 400  
info@resaguipezcoana.com  
www.resaguipezcoana.com

**BENITO**

HARATEGIA - URDAITEGIA

*Gora Santio jaiak*

Arroa Kalea, 4 - VILLABONA  
© 943 691 350

**SANHATSA**

BELAR-DENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA

**Jai zoriontsuak igaro**

**KONTSULTA NATURISTA**

Kale Berria, 50 - Villabona - Tel.: 943 694 279



# SANTIOAK 2018 EGITARAUA

## UZTAILAK 24

- 16:00** Frontenisa Olaederran. Euriarekin Bearzanan.
- 17:00** Eskuz binaka herrikoia Olaederran. Euriarekin Bearzanan.
- 18:00** Txupinazioa Aizkardi mendi taldearen eskutik, Iraunkorrak txarangak alaituta.
- 18:15** Buruhandi, ipotx eta erraldoien kalejira, Jeronimo dultzaina taldeak alaituta.
- 19:30** Helduen arteko areto futboleko finala Errebote plazan.
- 21:30** Herri afaria Errebote plazan. Euriarekin Txerminen.
- 00:30** Laiotz taldea Errebote plazan.
- 01:00** 40 urtetik gorakoentzako DJ emanaldia Txistulari plazan.

## UZTAILAK 25

- 09:00** Diana Loatzoko txistu taldearen eskutik.
- 10:30** Udal korporazioaren bisita Santiago egoitzara.

**11:30** Buruhandi, ipotx eta erraldoien kalejira, Jeronimo dultzaina taldeak alaituta.

**12:30** Eresargi txiki abesbatza Berdura plazan.

**18:00** Soka dantza Oinkariren eskutik Errebote plazan. Euriarekin Bearzanan.

**19:00** Atari bizi lehiaketa eta jai egitarauaren azalaren sari banaketa ekitalia Errebote plazan. Euriarekin Bearzanan.

**19:00** Rocklean Errebote plazatik abiatuta.

**20:30** Eresargi abesbatza eta Puro Relajo musika taldea Amalur plazan. Euriarekin Olaederran.

**23:00** Dantzaldia Joxe Mendizabalen eskutik Errebote plazan.

## UZTAILAK 26

**09:00** Diana Jeronimo dultzaina taldeak alaituta.

**10:00** Toka txapelketa Salbadora Jubilatuen Etxearen eskutik, Olaederra kiroldegiaren ondoan. Euriarekin Bearzanan.



Buruhandi, ipotx eta erraldoien kalejira, Jeronimo dultzaina taldeak alaituta. AIURRI

**11:00** Patata tortilla lehiaketa, 11-17 urte artekoentzako Txerminen.

**11:00** Jubilatuen eta kultur ikastaroetako ikasleen erakusketa Berdura plazan.

**12:30** Buruhandi, ipotx eta erraldoien kalejira, Loatz musika eskolako txistu taldeak alaituta.

**14:00** Jubilatuen bazkaria eta dantzaldia, Xabier Zubeldia eta taldearekin, Txerminen.

**16:15** Zumba klase herrikoia Txistulari plazan. Euriarekin Olaederran.

**16:30** Bola tiraldia haurrentzat Olaederrako bolatokian.

**17:30** Haur parkea Arroan. Euriarekin Olaederran.

**18:00** Cycling mini-maratoia, Txistulari plazan. Euriarekin Olaederran.

**19:00** Gaztetxoaren arteko areto futboleko finala Errebote plazan.

**00:00** Liher eta Bihozkada taldeak Errebote plazan.

## UZTAILAK 27

**18:00** Pala: emakumezkoak zein gizonezkoak binaka, eta eskuzko nagusien Santio txapelketa Bearzanan.

**18:00** Erraldoi, ipotx eta buruhandien konpartsa. Villabonako 8 erraldoiez gain Zizurkil, Añorga, Usurbil eta Berakoek ere hartuko dute parte.

**19:30** Txekor jatea eta sagardo dastaketa Txerminen.

**22:00** Oinkariren emanaldia Olaederran.

**23:30** Bide Batez Errebote plazan.

## UZTAILAK 28

**09:00** Plater tiraketa Atutu-Mandoegi zelaian.

**10:00** Xake jokoa helduentzat Txistulari plazan.

**11:30** Halterofilia saioa Errebote plazan. Danok Danena taldearen eskutik. Talde gonbidatua: Anaitasuna taldea, Iruñeatik. Euriarekin Olaederran.

**14:30** Kuadrillen bazkaria, Etxeondoko parkean.

**16:30** Xake jokoa haurrentzat Txistulari plazan.

**17:00** Kuadrillen kalejira Incansables txarangarekin.

**20:00** Elizagoien ahizpak zuzenean Errebote plazan.

**21:30** Kafe eta likore dastaketa jubilatuentzat DJ Txispyren eskutik, jubilatuen biltokian.

**00:00** Zezen suzkoa Errebote plazan.

**00:30** Gozategi zuzenean Errebote plazan.

## UZTAILAK 29

**09:00** Diana Loatzoren eskutik.

**10:00** Eskulangintza azoka Malkar plazan, goiz eta arratsalde.

**11:00** Marrazki lehiaketa haurrentzat Berdura plazan.

**12:30** Herri kirol parkea haurrentzat Bearzanan.

Ateak • Zokaloak • Armañuak neurria  
Leihoak • Eskailerak • Zurgintza orokorra

**Joseba**  
Aroztegia

687 683 427

josebaarotza@gmail.com

**ARJINDU**  
FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA

943 69 31 13

Ondo pasa festetan!

Errota, 7-behea  
20150 Villabona

**ALBIZU** **KIROLA**

**AK**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Kale Nagusia, 2 - 943 693 131  
Amasa-Villabona



**13:00** Donostiako txistulari banda Txistulari plazan.

**16:00** Bola tiraldia helduentzat Olaederrako bolatokian.

**18:00** Sokamuturra Errebote plazan.

**20:00** Jazzaldia Txistulari plazan. Iñaki Salvador jazz seikotea Mikel Laboa oroimenez.

**23:00** Ezten Giro Errebote plazan.

## UZTAILAK 30

**11:30** Santiotan kantari Bearzana frontoitik abiatuta. Errebote plazan. Euriarekin Txerminen.

**17:30** Kalejira Isk&bilarekin.

**18:00** Sagardo eta pintxo dastaketa.

**18:30** Santiotan kantari kantujira Amalur parketik abiatuta.

**19:00** Erromeria Ion Ansoregi eta Andoni Larrañagarekin.



Erromeria eguna uztailaren 30ean izango da, egun osoan zehar. AIURRI

**22:30** Bertsolariak Txermingo ikastolan: Miren Amuriza, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

**00:00** Izer eta Alabier.

**02:00** Larrain dantza herrikoia, Hernaniko dultzaineroen eskutik.

**02:30** Laket.

## UZTAILAK 31

**09:00** Diana Jeronimo dultzaina taldearekin alaituta.

**10:30** Ur parkea Txistulari plazan. Euriarekin Zubimusu ikastolan.

**11:30** Errebotea: Villabona-Hazparne 89. norgehiagoka Errebote plazan.

**13:00** Gora Kaletxiki banda Txistulari plazan. Euriarekin Gurean.

**18:00** Sokamuturra Errebote plazan.

**20:00** Remi Ayestaranen aldeko omenaldi ekitaldia haren izena daraman ibilbidean.

**20:30** Perkusio emanaldi ibiltaria. Errebote plazatik abiatuta, Zo-Zongoren ikuskizuna.

**23:00** Santioak irudi bidez, Errebote plazan. Euriarekin Gurean.

## Egitarau alternatiboa

Onddo gazte asanbladaren eskutik.

**Uztailak 24, asteartea**  
17:30 Eonian elektrotxaranga.

18:15 Txupinazoa, Onddo plazaren irekiera.

23:00 Danborrada Patxaranga txarangarekin.

01:00 TPR, Koltxoi.

**Uztailak 26, osteguna**

11:00 Erreka jaitsiera.

14:30 Barrikotea, Orkresta elektrotxaranga eta L.Martin Selekta.

**Uztailak 28, larunbata**

00:00 Txakur jana.

**Uztailak 29, igandea**

17:30 Haur jolasak.

19:00 Lur Gaztelumendi, saio akustikoa.

**Uztailak 30, astelehena**

00:00 Estarlus, DJ Liliith eta Dabu Selekta.

**Uztailak 31, asteartea**

22:30 Karaokea.

**AMASA**  
Gora Santioak  
Berria, 64 - Villabona  
943 693 831

**BASAJAUN LIBURUDENDA**  
basajaunliburudenda@gmail.com

Testu liburuak enkargatzeko garaia heldu da.  
Liburuak forratuak eraman ditzakezu prezio berdinean.  
Ikastetxe eta kurtso guztietako testu-liburuak saltzen dira.

Ondo pasa Santiotan

Eskolako mantalak  
Jolas didaktikoak  
Eskolarako tresnak

Nagusia, 29 - VILLABONA - Tel./faxa: 943 691 651

Ondo pasa!

**Eizmendi**  
ILEA PAINDEGIA

943 69 13 79  
Kale berria, 19  
Villabona

Jai zoriontsuak igaro

**Iraola**

Aholkularitza - Artezkaritza

ENPRESEN  
AHOLKULARITZA

Fiskala, dirukontuena,  
juridikoa, laborala,  
aseguru orokorrak

Kale Nagusia, 37 - AMASA-VILLABONA - Tel.: 943 692 763 • Faxa: 943 692 774



# Onddo plaza jaietan

Gazte Asanbladak ospakizun gehienak udaletxe ondoko plazatxoan egingo ditu, Santiotarako "Onddo plaza" izenarekin bataiatuko duten gunean

**Amaia Senperena** VILLABONA

"Jai alternatiboak herriari bizia emateko antolatzen ditugu eta herrikideak bertan parte hartzea animatu nahi ditugu. Betiko ekintzez gain, garrantzitsua baita ekintza alternatibo auto-gestionatuak bultzatzea", hortxe dago aurtengo Onddoko ordezkarien azalpena eta gonbitea. Indartsu ekingo diote jaiari, uztailaren 24an, ekitaldi sortarekin: Elektrotzaranga, txupinazoa, danborrada, kontzertua... Onddoren bereizgarri izango den zapia ere aterako dutela iragarri dute: "Urtero herriko zapia herriko eragile ezberdin batek atera ohi du eta aurtun, Onddo gazte asanbladak berea aterako du. Nahiko genuke herriarrek ere zapia eramatea". Jaietako lehendabiziko egunak



Soraya Barquero, Andoni Ugarte eta Oihana Alkain Onddoko ordezkariak. AIURRI

indartsuak izango dira Onddokoentzat, uztailaren 26rako Gazte Eguna antolatu baitute. Erreka jaitsiera, bazkaria, mo-zorro festa, musika,... gazteen eguna hitzorduz beterik dator.

Jai egitarau ofizialetik kanpo egingo dituzte aurtengo ekitaldiak, eta erabakia horrela arrazoitu dute: "Udalak aurreko urtean gure eta herriko beste eragileen aurka izan zuen jarrera dela eta

hartu dugu erabakia". Erabaki berriarekin, bestalde, orain dela urte batzuk antolatzen ziren ekitaldiak berrezarri nahi dira. Besteak beste, baltsa jaitsiera, danborrada eta haur jolasak.

## Baltsa jaitsiera

Onddoko kideek duela urte batzuk herrian arrakasta handia zuen jaitsiera antolatzeari ekin diote: "Izena emateko zerrendak zabalik daude eta oraindik jende askok izena eman ez badu ere, jaitsierako egunean jendea beraien baltsekin gerturatuko dela espero dugu".

Parte hartzeko bi baldintza daude: Adina eta baltsak egiteko materiala. 15 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute jaitsieran, eta baltsak egiteko materiala erreka kutsatzen ez duen materialaz osatuta egongo da.

**"EGITARAUA HERRIARI BIZIA EMATEKO OSATU DUGU. BERTAN PARTE HARTZEKO DEIA LUZATU NAHI DUGU"**

## Marrazki bizidunak Gazte Egunean

Jai egitarau ofizialean, uztailaren 26a Santa Ana da. Askorentzat, aldiz, Gazte Eguna. Erreka jaitsierarekin hasiera emango diote egunari, 11:00ak aldera, Aranerreka inguruan. 14:30rako bazkaria iragarri dute, bakoitzak berea eraman beharko duelarik: "Egunean bertan etxetik bazkariarekin etortzea nahikoa izango da. Momentuan jasoko ditugun 5 euroren truke hurbiltzen direnei edaria, postrea eta kafea eskainiko diegu". Bazkarirako txartelak aurrez eros daitezke Iratzar eta Erreka tabernetan. Jaiaren parte hartzeko, baldintza bakarra dago: Mozorrotzea. Aurtengoan marrazki bizidunei gorazarre egingo diete.

**MP**  
boutique

Ondo pasa Santiotan

Kale Berria, 12. Villabona. Tel 943 690 865

**arteca**  
RUBBER METAL SOLUTIONS

Gora Santioak!

Sacem industrialdea  
20150 Villabona  
943 691 700  
info@arteca.net  
www.arteca.net

# Santioak eskura

## Argazkiak, bideoak, egunez eguneko egitaraua

**AIURRI.EUS**



**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



# Areto futbol txapelketa

Jaien hasierako hitzordu klasikoetako da, baloiaren inguruan egiten dena. Bost gazteren esku dago antolaketa, eta horietako bi dira Aitor Guerra eta Ander Cambero

**Amaia Senperena** VILLABONA

**Zein paper du txapelketak zuentzat?**

Ander: Txapelketa jokatzeko den astelehenean, asteazken eta ostiraletan giro paregabea sortzen da herrian.

Aitor: Jendeak aipatu izan dit, partidak hastean herrian festa eta uda usaina nabaritzen dela.

**Adin tarte ezberdinetako jendea batzen duena, gainera.**

Aitor: Bai, gazteenak 16 urte izango ditu. Nik, adibidez, 30 urte ditut. Beraz, aldea badago. **Lagunartean bai, baina partidatan nabaritzen da lehiakortasun hori.**

Ander: Nik uste dut guztiok goazela irabaztera. Beti egongo dira hobeak direnak baina guztiok dugu irabazteko ilusio hori. Egia da, finala gerturatu ahala, lehiakortasuna eta urduritasuna areagotuz doazela.

**Edozeinek har dezake parte?**

Aitor: Partaidetza Aiztondo bailarara mugatu dugu eta talde bakoitzean, gehienez, Aiztondo bailaratik kanpoko bi pertsona sar daitezke.

Ander: Egia esan, ikustera ere kanpoko jende dezente etortzen da. Uztailaren 24an futbito txapelketako finalean plaza nola egoten den ikusi besterik ez dago. Festetako ekintzarik jendetsuenetarikoa da.

**Finala txupinazoaren ostean izateak ere lagunduko du**

Aitor: Bai, zalantzarik gabe. Finala txupinazoaren ostean izatean jende gehiago gerturatzen da. Hesia jartzen dugu zelai guztian zehar, eta lehenengo momentutik jendea finala ikusteko lekua hartzen hasten da. Poztasun handiz hartzen dugu hori.

**Zuek biak antolatzaile eta jokalaririk ari zarete. Batean edo bestean ibili, aldea dago.**

Aitor: Momentu bakoitzean onena ematen saiatu behar zara. Arazoak dauden momentuan, antolatzaile zaren aldetik, begiratu behar da.

**Zer da antolatzaile moduan egiten duzuen?**

Ander: Gure lana gehienbat partidak hasi aurretik izaten da: izena emateko datak jarritz, herrian paperak banatuz, sare sozialetan zabalduz, izen-emate orriak hartuz, bilerak eginez, udaletxera joanez etab... Behin partidak hasita, arazorik ez badago, gure parte-hartzea ez da beharrezkoa.

Aitor: Materiala erosteaz ere gu arduratzen gara: Atezainen sareak, baloiak eta abar. Txa-



Aitor Guerra eta Ander Cambero. AIURRI

pelketaren antolakuntzan jende gaztea sartzen saiatzen ari gara, gauzak nola doazen erakusten joateko eta gu pixkanaka ateratzen joateko. Lehenengo urtean hiru hasi ginen antolatzaile lanetan eta, aurtengorako, lanak piska bat banatu ahal izateko norbait gehiago hartzea erabaki genuen.

**Zergatik uste duzue ez dagoela emakume jokalaririk gehiago txapelketan?**

Ander: Zailagoa da neska koardila bat partidatan parte hartzera animatzea, eta errazagoa da neskaren bat mutilen koardila batean jokatzeko ikustea. Asteasuko taldearen kasua da hori. Emakumezko bat jokatzeko ari da asteasuarekin batera. Guk antolatzaile modura ez dizkiogu inori ateak ixten. Aiztondo bailarako den jende guztia txapelketan parte hartzera gonbidatuta dago.



**eizmendi anaiak**  
kirolak eta armategia

- Kirol eta mendiko arropa eta materiala
- Ehizeko arropa
- Armen salmenta eta konponketa
- Kartutxoaren eskaintza handia

Berria 19-21. Villabona  
Tel.: 943 692 623 / 688 844 983. Faxe: 943 693 044  
armeria\_eizmendi@telefonica.net



Ondo pasa festetan!





**fleming**  
HERRI ESKOLA  
www.flemingeskola.eus

**Ondo pasa Santiotan!**

943 69 14 13  
(Arratzain)  
943 69 35 12  
(Arroa)



**ERNIOBEABHI**  
AMASA-VILLABONA

Otelarre 35, Villabona  
Tel.: 943 69 37 33  
012952aa@hezkuntza.net



# Lehen Kuadrila eguna

Uztailaren 28an ospatuko da kuadrila eguna Santio jaietan. Urtero bezala Etxeondon bazkaldu ostean, herritik zehar kalejira izango da Incansables txarangarekin



Carbonarios kuadrillako argazkia. CARBONARIOS

**Olatz Lasa** VILLABONA

Kuadrila eguna ospatzen denetik hutsik egin ez duen kuadrilatako bat da Carbonarios. Goizean goiztik hasten ziren festan eta hurrengo egunerarte luzatzen omen zen parranda Incansables edota Nekaezinak txarangaren konpainian.

**Zenbat urte daramatzazue kuadrila eguna ospatzen?**

Bakartxo Oiarzabal: 29 urte dira kuadrila eguna ospatzen hasi

zenetik, baina gu 3-4 urte lehenago hasiak ginen bazkariak egiten anbulatorio zaharraren ondoan. Kalderete ederra egin ohi zigun Antonio Navaroren aitak.

Arantxa Laskurain: Santa Ana egunean izaten zen orduan.

**Zer da zuentzako kuadrila eguna?**

B. O.: Adin-tarte guztiak biltzen dituen eguna da. Kuadrilako asko herritik kanpo bizi dira, eta zail egiten da guztiak batzea.

A. L.: Oso polita da herriko kuadrila guztiak elkartzea eta ezagutzea, baita txarangarekin kalejiran guztiak elkarrekin nahastuta ibiltzea ere. Azken finean, jaietako egunik garrantzitsuena bihurtu da.

**Zer da kuadrila egunetik faltan botatzen duzuen?**

Pablo Etxeberria: Festa goizetik hastea, esaterako, sokamuturarekin. Lehen 08:00etan izaten ziren zezenak plazan. Gero, txar-

angarekin kalejiran hasi eta hamaiketako egiten genuen, eta ondoren, autobusa hartu eta txarangarekin batera Etxeondoraino joaten ginen bazkaltzera. Eguna oso tristea eta hotza gertatzen da bazkaria. 14:00etan bazkaria, 17:00etan txarangarekin kalejira eta 20:00etarako amaitu da txaranga.

Arantxa Arin: Lehen, txaranga kideek gurekin bazkaltzen zuten, une oro entzuten zen beren musika. Eta ondoren, gurekin etortzen ziren parrandara. Guzti hori galdu egin da.

Miguel Urreta: Hurrengo goizean txarangaokoen gosaltzen genuen.

**Txarangaren aurretik ikusi ohi zaituzte urtero kalejiran. Nola sortu zen harreman hori?**

P. E.: Txarangaok kuadrilako pare bat lagun arduradun lanean jardutea eskatzen zuten, egin beharreko ibilbidean gidari lanak egiteko. Geroztik harreman estua dugu.

**Zenbat lagun biltzen zineten hasierako urteetan?**


P. E.: Kuadrila eguna antolatzen lehen egunean ia 300 lagun bildu ginen. Eguna 1000-1500 inguru elkartzen gara.

**Anekdotak ugari izango dituzue. Batenbat kontatzerik bai?**

M. U.: Txaranga gurekin zegoela "El tractor amarillo" abestia kantatzen egon ginenekoa.

P. E.: Udako abestia izan zen.

B. O.: Plazan zeudenak gure atzetik etorri ziren kalejiran.



Pepita ura botatzen. AIURRI

## "Gustura botatzen dut ura balkoitik"

PEPITA ORTIZ  
BILLABONATARRA

**Aspaldiko ohitura al da jaietan ura botatzea?**

Betidanik oroitzen dut. Gaztetxoak ura botatzeko irrikaz egoten dira, izerdi patsetan joaten baitira txarangaren atzetik saltoka.

**Zenbat litro ur bota ohi dituzue?**

Dezente [kar kar kar]. Ura eskatu eta eskatu egoten dira gaztetxoak, eta nik gustura botatzen diet.

**Aurten ere balkoian ikusiko al zaitugu?**

Bai, noski. Entretanimendu ederra izaten da niretzat.



Santio jaiak VILLABONA  
2018  
Uztailak 24-31

**Jai zorientsuak!**



AMASA-VILLABONA  
Villabonako Udala









**ZORION AGURRAK**



**ANDOAIN Aiur**  
Aiur Alustiza Lezak  
4 urte beteko ditu datorren abuztuaren 1ean. Zorionak Haizea eta Araitzen partetik.



**ANDOAIN Inge**  
Inge Igarrizek  
11 urte beteko ditu datorren abuztuaren 5an. Muxuak familiaren partetik!



**URNIETA Izaskun**  
Izaskun, zorionak!  
Jadanik hiru urte bete dituzu. Ondo pasa eguna familia guztiarekin.



**ANDOAIN Itxaso eta Eñaut**  
Itxasok 2 urte beteko ditu uztailearen 23an eta Eñautek 6 urte, 27an. Ondo pasa! Berrueta familiaren partetik.




**ANDOAIN / AIA Aner Lopetegi**  
Abuztuaren 10ean 10 urte beteko ditu gure futbolistak. Unax anaia, Oñatz lehengusua eta etxekoak.



**ANDOAIN Ane Lopez**  
Etxeko txikiak 5 urte beteko ditu uztailearen 31n!! Egun ahaztezina izan dezazula! Muuuuuua!!! Etxekoak.



**ANDOAIN Maialen**  
Uztailearen 16an 11 urte. Zu ikusteko eta zurekin ospatzeko irrikitan, udalekuetan pasa eta gero. Muxu potoloak. Etxekoak.



**ANDOAIN Manex Mendizabal**  
Uztailearen 7an 19 urte bete zenituen. Zorionak amona Miren eta aitona Estebanen partetik.

**ONGI ETORRIAK**



**ANDOAIN Izaro**  
Uztailearen 7an Izaro Tena Otaño jaio zen. Ongi etorri familiara! Etxekoak.



**ANDOAIN Arai**  
Arai Esnaola Tena uztailearen 17an jaio zen. Ongi etorri familiara! Etxekoak.

**HITZORDUAK UDAN**

\*ERREDAKZIOAREN OHARRA: HURRENGO AIURRI IRAILAREN 5EAN ARGITARATUKO DA. Bitartean albisteak eta hitzorduak [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) gunean argitaratuko dira: 943 300 732 / [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus)

**OSTIRALA 20**

**ANDOAIN Zinema kalean**  
"Piratas del Caribe: La venganza de Salazar" filma.  
22:00, *Goikoplaza*.

**OSTIRALA 27**

**ANDOAIN Etxeberrietako jaiak**  
17:00 Txupinazoa, marrazki lehiaketa.  
18:00 Txokolatada, Zumbaton.  
20:00 Afari-merienda.  
23:00 Djak.  
17:00, *Etxeberrieta*.

**LARUNBATA 28**

**ANDOAIN Mendi irteera**  
Mendi zeharkaldia Piriniotan Euskaldunaren eskutik. Uztailearen 24a baino lehen izena eman beharra dago. 943 59 22 32 telefono zenbakian, asteleheneetik ostiralera (20:00-21:00).  
06:00, *Laboral ondoko bus geltokia*.

**URNIETA Mendi irteera**  
Toloño mendilerroa Zanpatuz mendi elkartearen eskutik. Uztailearen 23a baino lehen izena eman beharra dago Kantoin edo Ikasminen.  
07:00, *Matxo ondoko bus geltokia*.

**ANDOAIN Etxeberrietako jaiak**  
11:00 Haur tailerrak, patin jolasak.  
13:00 Patata tortila lehiaketa.  
16:00 Mus txapelketa.  
18:00 Sagardo dastaketa.  
23:00 "El rincón del desban" taldea.  
11:00, *Etxeberrieta*.



Lagunarteko giroan, auzoen arteko herri kirol saioak izango dira udako jaietan.

**ANDOAIN Auzoen arteko herri kirol saioak**  
Santa Krutz jaietan hasi eta Sorabillako jaietaraino luzatuko dira kirol saioak.  
*Uztailak 29, igandea. 18:00, Etxeberrietako jaiak.*  
*Abuztuak 4, larunbata. 18:00, Goiburuko jaiak.*  
*Abuztuak 12, igandea. 19:00, Buruntzako jaiak.*

**IGANDEA 29**

**ANDOAIN Etxeberrietako jaiak**  
10:00 Krosa. Paco Agirrerri omenaldia.  
12:00 Txakur erakustaldia.  
18:00 Herri kirolak, toka lehiaketa.  
10:00, *Etxeberrieta*.

**ASTELEHENA 30**

**ANDOAIN Etxeberrietako jaiak**  
17:30 Haur ikuskizuna eta txokolatada.  
20:00 Danborrada. Gauean Alaiki.  
17:30, *Etxeberrieta*.

**ASTEARTEA 31**

**ANDOAIN Etxeberrietako jaiak**  
10:00 Kalejira.  
11:30 Meza.  
12:00 Moto erakustaldia eta kantujira.  
14:00 Auzo bazkaria.  
20:00 Sardin jana, Los Rubi.  
10:00, *Etxeberrieta*.

**ANDOAIN Goiburuko jaiak**  
06:00 Oilasko bilketaren hasiera.  
14:30 Oilasko biltzaileen bazkaria Txertotan.  
06:00, *Goiburu*.

**ABUZTUA**

**OSTEGUNA 2**

**ANDOAIN Goiburuko jaiak**  
22:30, *Goiburu. Jaien hasiera*.

**OSTIRALA 3**

**ANDOAIN Goiburuko jaiak**  
12:00 Meza eta pilota partidak.  
17:00 Mus txapelketa.  
18:00 Trikitilariak eta kantujira.  
21:00 Auzo afaria, musika.  
12:00, *Goiburu*.

**LARUNBATA 4**

**ANDOAIN Goiburuko jaiak**  
10:30 Krosa.  
14:00 Bazkaria.  
18:00 Auzoen arteko herri kirolak.  
18:00 Artisau garagardo dastaketa.  
21:00 Afaria. Gauean Gabezin.  
10:30, *Goiburu*.

**URNIETA Ur festa**  
Puzgarriak igerileku irekian. 18:00tan ipuin kontaketa saioa.  
10:30-14:30, *igerilekua*.

**IGANDEA 5**

**ANDOAIN Goiburuko jaiak**  
11:00 Pala txapelketako finalak.  
14:00 Bazkaria.  
18:00 Sagardo dastaketa.  
21:00 Afaria. Baltzola eta Andonegi.  
11:00, *Goiburu*.

**LARUNBATA 11**

**ANDOAIN Buruntzako jaiak**  
06:00 Oilasko biltzaileen irteera.  
15:00 Biltzaileen bazkaria.  
18:00 Mus txapelketa.  
06:00, *Buruntza*.

**URNIETA Ur azpiko saioa**  
Ur azpiko arkeologia saioa.  
*Igerilekua*.

**IGANDEA 12**

**URNIETA Antzerkia**  
"Zoaz bake santuan". Aktoreak: Ane Gabarain eta Mikel Laskurain.  
19:00, *Sarobe. 5 euro*.

**ANDOAIN Buruntzako jaiak**  
13:30 Bazkaria Gaztañagan.  
19:00 Auzoen arteko herri kirolak.  
13:30, *Buruntza*.

**ASTEAZKENA 15**

**ANDOAIN Buruntzako jaiak**  
San Roke kros mendi lasterketa.  
10:00, *Buruntza*.

**OSTEGUNA 16**

**ANDOAIN Buruntzako jaiak**  
10:30 Trikitilarien kalejira.  
11:00 Mendiluze eta beloki.  
11:30 Meza.  
12:00 Dantza, haur jolasak eta toka.  
14:00 Auzo bazkaria bertsolariekin.  
10:30, *Buruntza*.



## GUGAN BEGO



Hitz gutxitan definitu beharko bagenu, Joxan Huizi Ulanga XXI. mendeko Euskaldunako lehendakaria dela esan genezake. 2007 eta 2017 urteen artean klubaren ardura nagusia bere gain hartu zuen. AIURRI

# Joxan Huizi Ulanga gogoan

2007-2017. Hamarkada batez Euskalduna SD futbol taldeko lehendakaria izan zen Joxan Huizi Ulanga. Udaletxeko diruzaina ogibidez, asteartean bihotzekoak jota zendu zen. Oso pertsona ezaguna Andoainen, haren heriotzak oihartzun zabala izan du

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN  
Asteartean bihotzekoak jota hil zen Joxan Huizi Ulanga. Askorentzat udaletxeko diruzaina. Beste askorentzat Euskalduna futbol taldeko lehendakaria. Denentzat, andoaindar ezaguna. Haren heriotzaren albista berehala zabaldu zen herrian.



Euskaldunako zuzendaritza talde berriak bere heriotzarekiko atsekabea adierazteko oharra argitaratu zuen, astearte arratsaldean bertan: "Joxean Huizi Euskalduna futbol taldearen lehendakari ohiaren heriotzaren berri jaso dugu. Besarkada bero bat familiari eta ingurukoei. Gugan bego". Ana Carrere Andoingo alkateak bere ibilbidea

goraipatu zuen. Udal langile modura "langile aparta zen. Agintera iritsi ginenean eskaini zigun laguntza betiko eskertuko diogu. Euskaldunako zuzendaritzan utzi duen ondarea garrantzitsua da: Egunez egun kluba hobetzeko lan eginez, edota emakumezkoen taldeak mar txan jarritz".

## XXI. mendeko lehendakaria

Hitz gutxitan definitu beharko bagenu, Joxan Huizi Ulanga XXI. mendeko Euskaldunako lehendakaria dela esan genezake. Bera baita klubaren aro garaikidean lehendakari postuan denbora gehien eman duen pertsona. Lehendakaria, edo lemazaina,

ehunka jokalariren ardura bere baitan hartu zuen lantaldeko gidaria. 2017ko ekainaren 3an utzi zuen bere kargua, denboraldia amaitzearekin batera.

Uda hartan, 2017-2018. denboraldiaren hasieran jokatu zen Larramendi txapelketaren atarian, Euskaldunako zuzendaritza talde berriak omenalditxo eskaini zien Joxan Huiziri eta baita bere esanetara egon zen lantaldeari ere. Hauexek: Xabier Garcia, Jose Mari Estibariz, Pedro Martinez, Javier Zatarain eta Olatz Irazu.

Euskaldunako ardurak alde batera utzi bazituen ere, udaberriaren ekitaldi berezian parte hartzeko aukera izan zuen. Gipuzkoako futbol federazioaren mendeurrenean, hain zuzen.



**Atzoko eta gaurko buruzagiak** Gipuzkoako Futbol Federazioaren mendeurreneko ekitaldian. Zutik: Ramon Iriarte, Joxan Huizi, Pedro Irazu, Xabier Aldalur, Joxe Galparsoro, Jesus Martin eta Gerardo Abrego. Makurtuta: Eneko Peñalbo, Joxerra Bengoetxea, Jose Joakin Jauregi eta Joxe Mari Oizartzabal.

## HERIOTZ-OHARRA

### Joxe Angel Huizi Ulanga jauna

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko bazkidea  
Andoainen hil da, uztailaren 17an, 59 urte zituela



Hutsik gabeko bazkide izan haiz, bihotz garbiko laguna; Atakarik zail, makurrenetan bazterrean utzi ez gaituna. Hire ametsen artean bahuon futbol taldea Euskalduna; alaitasuna huen giltzarri, umorea oihartzuna; beti gogoan izango haugu-ta, hik gogoan izan Bazkuna.

Andoain, 2018, uztailak 19.  
M.L.K.B.





Udal ordezkariak Lamina gaztearekin.

## Harrera ekitaldia Urnietako udaletxean

Joan zen ostiralean Urnietako Udalak harrera egin zion uda igarotzera etorri den Lamina izeneko Saharako haurrari. Uztaillean eta abuztuan mediku azterketak egingo ditu, beharrezko botikak eta elikagaiak eskuratzearekin batera. Desertuko beroa alde batera utzita, bertako klimaz gozatu ahal izango du. Udalak udalekueetan izena eman eta igerilekuan sartzeko txartela eskaini dio, arropa erosteko bono bat oparitzearekin batera.



2012ko uztailean mendian zendu zen.

## Kattori omenaldia Etenetan, hilaren 28an

Katto Amilibia andoaindarra gogoan hartuko dute datorren uztailearen 28an, haren heriotzaren seigarren urteurrenean. Mendi ibilaldia, omenaldia eta bazkaria antolatu dituzte. Hauek dira ordutegiak:

- 09:00 Oinezkoen irteera Bekoplazatik.
- 09:30 Txirrindularien irteera Bekoplazatik.
- 10:00 Oinezkoen irteera Besabitik.
- 11:00 Omenaldia Etenetan.
- 14:00 Herri bazkaria Goiburun. Bazkarirako txartelak Iruberrin salgai izango dira uztailearen 25era bitarte.

## AZKENA



ADUNATIK BETERRI-BURUNTZA ALDERA DATOR Tropela Adunatik barrena Andoainera iristen, iazko Donostiako Klasikoan.

# Klasikoa Andoaindik eta Urnietatik barrena

Datorren abuztuaren 4an Donostiako Klasikoa eskualdean barrena igaroko da. Andoaingo txirrindulari eskolak eta herriko elkarteek bide segurtasuna bermatuko dute Adunako mugatik Urnietaraino. Laguntzaile bila ari dira egun hauetan

### Erredakzioa ANDOAIN

Frantziako Tourra amaitu eta egun gutxira, nazioarteko txirrindularitza onenak hitzordua du Euskal Herrian. Datorren abuztuaren 4an Donostiako Klasikoaren edizio berria jokoan izango da, munduko onenak bertatik bertara ikusteko aukera paregabea.

Txirrindulariek ibilbidean zehar dizdira egin ahal izateko, ordea, isileko lan handia egin behar izaten da. Bereziki, bide segurtasunean.

Andoaingo txirrindulari eskolak Sorabillatik Leizotzeraino txirrindularien ibilbidea zaintzeko ardura bere gain hartu du. Ez dira bakarrik egongo,

herriko beste elkarteetako laguntzaileak ere alboan izango dituztelako. Nolanahi ere, bolutarioen premia izango dute. Laguntzeko gogoz dagoenak harremanetan jarri beharko du Andoaingo txirrindulari eskolako arduradunekin. Harremanetarako e-posta honakoa da: [info@andoaingo.eus](mailto:info@andoaingo.eus).



Andoni Urbistondo urnietarra.

## Tourra Aiurri.eus webgunean

Lehen egunetako etapen urduritasuna eta harbideak sortzen duen beldurra alde batera utzita, Alpeei begira jarri dira txirrindulariak. 2018ko Frantziako Tourraren ibilbidea erdialdera iristen ari da eta azken helmugara bitarteko zailtasunak, emozioak eta gorabeherak aiurri.eus webgunean irakurri ahal izango dira.

Andoni Urbistondo urnietarra Tourraren atal berezia osatzen ari da, etapa bakoitza amaitu eta minutu gutxira argitaratzen dena. Aiurri.eus gunean ez ezik, egunean eguneko kronikarako sarbidea egin ahal izango da Aiurriko @aiurri eta Urbistondoren @urbixx twitter kontuetatik ere.



SORABILLATIK URNIETA ALDERA Herrigunea zeharkatuko du Donostiako Klasikoak.



URNIETATIK DONOSTIA ALDERA Laguntzaileak, iaz, Andoain-Urnieta arteko mugan.